

## Bunt Planetek eta Viralgenek irabazi dituzte aurtengo DonostialNN enpresa berritzaileen sariak



(Ezkerretatik eskubitara: Imanol Lasa, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Diputatu, Javier García, Viralgen, Eneko Goia, Donostiako alkatea, Pedro Miguel Etxenike, DIPC Fundazioa Lehendakaria, Marisol Garmendia, Ekonomia Bultzatzeko zinegotzia, eta Ainhoa Lete, Bunt Planet)

Bosgarren edizioa izan dute DonostialNN sariak, Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoak Berrikuntzaren Astean emandakoek, eta Bunt Planet enpresa saritu dute enpresa finkatuen kategorian, eta Viralgen enpresa gazteen kategorian, berrikuntzaren alde egiten duten apustuagatik, haien ikuspegi globalagatik eta hiriarekin duten loturagatik. Sariak gaur eman dituzte, ostiralean, urriaren 30ean, Donostia WeekINN astearen barruan, Donostia Sustapenak Maria Cristina Hotelean antolatutako ekitaldi batean.

**Marisol Garmendia Ekonomia Bultzatzeko zinegotziak** adierazi duenez, “sari horien asmoa da balioa ematea eta aitortza egitea Donostian berrikuntzaren aldeko apustua egiten duten enpresei. **Bunt Planeten** jardueran ikus dezakegu, software ingeniarriz berrikuntzaren eta teknologiaren aldeko apustuaz gain, berrikuntza erraztea bezalako alderdi gako bat. Bere gaitasunen bitartez, bere zerbitzuak jasotzen dituzten enpresei prestakuntza eta gaikuntza espezifikoak ematen die, bereziki maila industrialean, jasangarritasunaren eta uraren kudeaketaren alorrean. Modu jasangarrian kudeatzeko gaitasunaren eta berrikuntzaren aldeko apustuaren adibide garbia da, gure hiriaren errealitatea ondo islatzen

duena. **Viralgeni** dagokionez, oso denbora laburrean erakutsi du bere apustua dela Donostian eta Gipuzkoan potentzial handia duen proiektu baten adibide garbia. Garbi dago bioteknologiaren edo biozientzien sektorea aukera handiko sektorea dela gure hirian, enpresa gazteak sortzen ari baitira haren inguruan. Argi daukagu lagundu egin behar zaiela, Donostia Sustapenak egiten duen moduan, hainbat instrumentu eta programaren bitartez. Harvardek Viralgen aukeratu du COVIDarentzako txerto bat fabrikatzeko, eta duela gutxi

Bayer multinazional alemanak eskuratu du enpresa. Horrelakoek indartu besterik ez dute egiten bere potentziala eta epe laburrean hazteko aukera, horrek gure hiriarentzat dakarren guztiarekin”.

Berrikuntzaren Astearen barruan, Ekonomia Bultzatzeko zinegotziak aitortza berezia egin nahi die berrikuntzaren aldeko apustua egiten duten enpresei, eta Enpresa Berrikuntzaren Donostia INN sariak sortu ditu, bi kategoriarekin. Hori guztia Donostia Sustapenaren bitartez egin da, berrikuntzaren kontzeptuari jarraituz hiriaren garapen ekonomikorako politikak, estrategiak eta proiektuak sustatzen dituen sozietatearen bidez. Honako hauek dira sarien bi kategoriak:

- Nazioarteko bokazioarekin negozio berritzaileak garatzeko apustu garbia egin duten enpresak, hirian errotutakoak eta harekin lotura handia dutenak, beren jarduera finkatu dutenak eta erreferentzia bilakatu direnak, ez soilik beren sektorean, baita hirian ere, kudeaketa eredu gisa.

- Enpresa gazteak, duela gutxi sortutakoak, beren jarduera gure hiritik arrakastaz garatzen dutenak sektore berrietan, proiektio handia dutenak mundu mailan, eta etorkizuneko enpresa ereduak ordezkatzeko dutenak, talentu eta oinarri teknologiko handikoak.

Honako irizpide hauei jarraitu zaie sariak emateko:

- Berrikuntzaren aldeko apustua**: berrikuntzaren aldeko apustu irmoa egiten duten enpresak, hirian enplegua eta aberastasuna sortzeko amoz, beren negozio ereduak etengabe berrasmatzetik abiatuta.

- **Eragina**: berritzen duen eta hazten den enpresa orok eragin positiboa izan behar du, bai bere emaitzen kontuan bai bere kokalekuaren inguruan ere, kalitatezko enplegua sortuz eta talentua erakarriz eta inguruan mantenduz.

- **Enplegua**: hirian eta eskualdean, estatuan edo nazioartean enplegua haztea positiboki baloratu da. Berrikuntza eta I+Ga hazkunde horren katalizatzailetzat jo dira.

- **Ikuspegi globala**: bikain berritzen duten eta errentagarriak diren enpresak beren produktu eta zerbitzuak eskaintzeko eredu globaletara bideratuta daude.

- **Hiriarekiko lotura**: bereziki baloratu da enpresek hiriarekin eta Donostia Sustapenarekin eta Donostiako Udalarekin duten lotura eta elkarlana, hiria berrikuntza eta talentu polo moduan egituratzen eta sustatzen laguntzen dutenak.

## FINKATUTAKO ENPRESEN DONOSTIANN ENPRESA BERRIKUNTZAREN SARIA

### BUNT PLANET

Bunt Planet Donostian finkatutako enpresa bat da, orain dela 20 urte sortutakoa, eta ur galerak prebenitzeko softwarea garatzen espezializatua. Software ingeniarietza garatzeaz



*Hiri berritzailea*  
*Ciudad innovadora*

fomentosansebastian.eus

gain, enpresei beren proiektuetarako arkitektura eta teknologia egokiena hautatuz softwarea garatzeko taldeentzako gaikuntza eskaintzen die. Hasiera-hasieratik aitzindaria izan da Euskal Herrian, industriarako teknologia digitalen esparruan. Haren jarduera hazi egin da mailaka, bereziki sortzen dituen patenteen eta berrikuntzen ustiapenari dagokionez.

I+G+b-an egiten duten ahaleginaren erakusgarri da patenteen zorroa, zeinaren inguruan egituratzen eta garatzen duen bere enpresa jarduera, baita berrikuntzaren alorrean jasotako sariak ere.

- Europako Batzordeak saritu ditu bikaintasun zigiluekin, IBM Smart City Beacon Award saria jaso zuen 2014an, eta DV 2014 saria aplikazioen kategorian. Halaber, "ponpaketa zentral mistoa eta energia sortzeko eta biltegitzeko metodoa" bezalako patenteak dituzte.
- Horrez gain, SME Instrument Phase 1 eta Phase 2 Europako deialdian parte hartu zuen, eta horrek ez du bermatzen soilik enpresaren jardueran internazionalizatzea, jarduerak Europa guztiko behar komuntzat balio duela ere aitortzea bermatzen du. Horregatik, merkatua Europakoa da, eta internazionalizatzea enpresaren DNAn eta enpresaren jardueran txertatuta dago, argi eta garbi.

Enpresak bere langile kopurua egonkor mantendu du azken urteotan, eta berrikuntza jardueran bertan profil espezifikokoak txertatu ditu, proiektu konplexuei heltzeko aukera eman dion lan eskema baten barruan. Gaur egun, taldeak langile multzo aldakor bat erabiltzen du (proiektuen arabera), 20 eta 100 langile artekoa, eta nazioarteko hornitzaile sare handi bat du.

## **ENPRESA GAZTEEN DONOSTIAINN ENPRESA BERRIKUNTZAREN SARIA**

### **VIRALGEN**

Viralgen Askbio eta Columbus Venture Partnersen arteko enpresa bateratu gisa sortu zen. Hamarkadetako esperientzia biltzen du, teknologian eta hainbat plataformatako medikamentuen garapenean, terapia genikoaren merkaturako zerbitzu eskaintza hobek bultzatzeko. 2017an sortu zen, terapia genikoak fabrikatzeko beharra ase gabe zegoelako, bizitzak salbatzen dituzten terapia horietarako sarbidea handitzen laguntzeko eta mundu guztian osasunaren eta gizakiaren ongizatearen bidean urratsak egiteko.

Harvardeko Unibertsitatearena da COVID-19aren aurkako txerto hautagaien artean etorkizun handiena dutenetako bat, eta Viralgen aukeratu zuen haren birus bektoreen hiru fabrikatzaileetako bat izateko (Europako bakarra da, beste biak amerikarrak baitira). Mundu mailako aitortza da hori, ez soilik enpresaren bikaintasun zientifiko eta teknologikoaren mailari eginikoa, baita haren ekoizpen gaitasunari ere, hura hautatzeko arrazoietako bat izan baita milioika txerto ekoitziko direla.

Viralgenek epe ertainean haziko den esperantzak, edo epe laburrean Harvarden txertoak aurrera egiten badu, erakarpen efektu handia izan dezake Donostiako eta lurraldeko garapenean, teknologiak garatzen dituzten enpresen sektore garrantzitsu horretan.



*Hiri herritzailea*  
*Ciudad innovadora*

fomentosansebastian.eus

Gainera, lurraldean sektore horren garapenean izan dezakeen eragina are gehiago handitu daiteke, Bayer botika multinazionalak eskuratu baitu enpresa, eta, beraz, ase egin du bio startupek garatutako produktuen eskatzaile industrial baten eta enpresa erakarle baten beharra.

Donostialnn sariez gain, Berrikuntzaren Asteak Donostia International Physics Centerri urteko aitortzaren saria eman dio, gure hirian ikerketaren eta berrikuntzaren alorrean lan handia egin duen eta Donostiako ekonomian eragin handiko jarduera duen pertsona edo entitate bati ematen zaiona.

DIPCek nabarmen lagundu dio hiriaren nazioarteko proiektioari, eragina izan baitu kulturari eta ezagutzari. Lotura profesional eta pertsonalak egin ditu, eragin handia dutenak hirian, eta, haren kalitate zientifikoari eta jarduteko fintasunari esker, Donostiaren izen ona mundu osoan hedatzen duten enbaxadoreen sare zabal bat dauka. Horrez gain, herritarrengana iristen jakin du, eta ezagutzaren grina helarazten.

Sariak banatzeko ekitaldia gaur egin da, urriaren 30ean, asteazkenean, Berrikuntzaren Astean, Donostiako Maria Cristina Hotelean. Bertan izan dira Eneko Goia Donostiako alkatea, Ekonomia Bultzatzeko zinegotzi Marisol Garmendia eta Ekonomia Sustapeneko diputatu Imanol Lasa.

## WEEKINN-EN BALANTZEA

DonostialNN sari banaketa izan da Berrikuntzaren Astearen zazpigarren edizioaren azken ekitaldia. Urriaren 24an hasi zen, eta orduetik Donostiako herritarrei espazio bat eman die jasaten ari garen “superaldaketen” ondoriozko erronkak ezagutzeko eta horien inguruan hausnartzeko eta eztabaidatzeko. Edizio honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz, Donostia WeekINNeK online jarduerak eskaini ditu, ekitaldiak edukiera mugatuarekin egin ditu, eta kaleko erakusketak ere antolatu ditu. Elkarlanean aritu dira Román Arjona, Europako Batzordeko Ikerketa eta Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusiko ekonomista burua eta Nuria Oliver adimen artifizialeko aditua, besteak beste. WeekINN TV-ren bitartez streaming saioak egin dira, Talent Housen jarritako plato batetik, eta eztabaidak egin dira hainbat gairen inguruan, adibidez, ekitaldien etorkizunari edo hirien diseinuari buruzkoak.

**Ekonomia Bultzatzeko zinegotziak, Marisol Garmendiak**, nabarmendu zuenez, “egoera eta testuinguru latz honetan, pozgarria da ikustea Berrikuntzaren Astea egin ahal izan dugula, edukia eta formatua bera egokituz Garrantzitsua iruditzen zitzaigun hiri gisa ditugun erronken aurrean espazio bat eskaintzea hausnarketarako, ezagutzarako eta konexiorako, bertan laguntzeko egin beharreko lan horretan, eta gure bizi eta lan ereduaren oinarri berriak garatzen, beti ere pertsonak erdigunean jarritz. Eta horixe egin dugu, formatu digital berriak garatu ditugu, eta haien bidez hedatu eta bizi ahal izan ditugu bizi dugun superaldaketa honi aurre egitera bideratutako ideiak partekatzeko esperientziak eta topaketak. Jarduera guzti-guztiak egin ahal izan dira, orain dela gutxi alarma egoera ezarri zela-eta segurtasun eta osasun protokoloak are zorrotzago ezarri arren. Parte hartzaile ugari izan ditugu, eta asebetetze maila handia izan da haien artean. WeekINN honen bidez, ziurrenik bide bat eta formatu batzuk zabaldu ditugu, aukera emango digutenak herritarrekin, enpresekin eta eragile guztiekin hobeto konektatzeko, ikasteko eta aurrera egiteko proiektuak garatzeko gai izateko, egungoa bezalako paradigma aldaketa batean, presente genituen joera batzuk azkartzen diren honetan, esaterako, WeekINN honetan protagonista izan den mailakako digitalizazioa”.

